# Presentación

Colaborando con el Salón del Cómic de Navarra, en su fomento por el que se ha denominado como el noveno arte, y fiel a su misión en la promoción del estudio y difusión del carlismo, el Museo del Carlismo presenta la exposición temporal "*¡Cuántos son mis soldados! Pelayos, ilustrando una infancia bélica*", que analiza uno de los episodios más desconocidos del carlismo así como un interesante ejemplo del desarrollo de las revistas infantiles en España durante la guerra civil.

El semanario infantil *Pelayos*, nacido por el impulso de dos religiosos catalanes ideológicamente afines al tradicionalismo, publicó 101 números entre diciembre de 1936 y noviembre de 1938 antes de fusionarse por virtud del Decreto de Unificación, aunque con muchas reticencias, con la revista falangista *Flecha*, dando lugar a *Flechas y Pelayos*.

Publicada en San Sebastián, ciudad de larga tradición editorial y que tras su toma por las tropas rebeldes se convirtió en la capital editorial de la España nacional, la revista *Pelayos* reunió en sus páginas el talento de un buen número de guionistas y dibujantes a quienes la contienda situó en la capital gipuzkoana. Desde su primer editorial, la revista dejó clara su finalidad adoctrinadora para lo que combinó mensajes integristas con el empleo del lenguaje propio de las revistas infantiles que venían publicándose en España desde finales del siglo XIX y que se habían popularizado, de un modo especial, desde la aparición de *TBO* en 1917.

*Pelayos* fue una revista infantil puesta al servicio de la propaganda de guerra y, por ello, participó de unos mensajes y de un lenguaje gráfico y visual radicalizados y de fuerte contenido belicista, erigiéndose como uno de los instrumentos más eficaces en la denominada "guerra de papel". Sin embardo, y posiblemente por esa misma finalidad, sus promotores pusieron gran empeño por dotarla de una dirección artística solvente y de contar con la colaboración de autores y autoras profesionales y noveles que otorgaron a la publicación continuidad y una creciente calidad, convirtiéndola en una revista de referencia para parte de la infancia y juventud españolas.

La exposición revela el contexto cultural en el que se gestó la revista, a sus artífices, dibujantes y guionistas, a través de la exhibición de sus portadas y de las páginas interiores, permitiendo apreciar la aportación de dicha revista al desarrollo del cómic en España, y poniendo en valor el trabajo de hombres y mujeres que, más allá del dogmatismo y del sectarismo propio de este tipo de publicaciones, desempeñaron una labor profesional en el campo del cómic y de la ilustración antes y durante el franquismo.

En el panorama internacional, el contexto de *Pelayos* es el de la renovación del cómic como género a través de dos títulos y dos autores que establecieron las que pueden considerarse coordenadas básicas para su posterior desarrollo: el *Flash Gordon* de Don Moore y Alex Raymond, surgido en enero de 1934, y *The Spirit*, de Will Eisner, aparecido en 1940. En este marco, y sin negarse que *Pelayos* fue un instrumento efectivo en la propaganda de guerra, debe admitirse que contribuyó también a la educación tebeística de los más jóvenes y a fidelizar al público en torno a este tipo de lecturas, que alcanzarían su edad dorada en España durante las décadas centrales del siglo XX.

Museo del Carlismo

# Aurkezpena

Nafarroako Komikiaren Azokarekin elkarlanean, bederatzigarren artea deritzona bultzatze aldera eta karlismoaren azterketa eta hedatzea sustatzeko helburuari helduta, Karlismoaren Museoak *"Zenbat diren nire soldaduak! Pelayos, haurtzaro beliko bat irudiztatzen"* izeneko aldi baterako erakusketa aurkezten du. Bertan, karlismoaren gertakari ezezagunenetako bat eta Gerra Zibilean Espainian haurrentzako aldizkarien garapenaren adibide interesgarri bat izan zirena aztertzen dira.

*Pelayos* haur-astekaria ideologikoki tradizionalismoarekin bat egiten zuten bi elizgizon katalanen bultzadari esker sortu zen. 101 zenbaki argitaratu zituen 1936ko abenduaren eta 1938ko azaroaren artean, Bateratze Dekretuaren bidez eta errezeloak errezelo *Flecha* aldizkari falangistarekin fusionatu eta *Flechas y Pelayos* bilakatu aurretik.

Edizioaren arloan tradizio luzea zuen hiri batean argitaratu zen: Donostian. Izan ere, matxinoen tropek hiria hartu eta gero Espainia nazionalaren hiriburu editoriala bilakatu zen. *Pelayos* aldizkariaren orrialdeek liskarrak Gipuzkoako hiriburuan harrapatu zituen gidoilari eta marrazkilari ugariren talentua jaso zuten. Aldizkariaren lehenengo editorialetik argi eta garbi geratu zen doktrinatze-xedea zuela; eta, horretarako, mezu integristak zein haurrentzako aldizkarien berezko hizkuntza erabili zituen, XIX. mendearen amaieraz geroztik argitaratzen baitziren Espainian eta 1917an *TBO* aldizkaria agertu zenetik arrakasta berezia eskuratu baitzuten.

*Pelayos* gerrako propagandaren zerbitzura zegoen haurrentzako aldizkaria izan zen. Hori dela eta, mezu, hizkuntza grafiko zein bisual erradikalak, eduki belizista handikoak, jaso zituen, eta "paperezko gerra" deritzonean tresnarik eraginkorrenetako bat izango zen. Alabaina, eta seguruenik xede hori izateagatik, aldizkariaren sustatzaileek ahalegin berezia egin zuten zuzendaritza artistiko gorena eta autore profesional zein hasiberrien kolaborazioa izan zezan. Horri esker argitalpenak jarraitutasuna eta geroz eta kalitate handiagoa izango zituen, Espainiako haur eta gazte askorentzat erreferentziazko aldizkari bilakatzeraino.

Erakusketak aldizkaria sortu zen garaiko testuinguru kulturala eta haren sortzaile izandako marrazkilari zein gidoilariak ezagutarazten ditu azalak eta barne-orrialdeak erakutsiz. Hala, aldizkariak Espainian komikia gara zedin egindako ekarpena hauteman daiteke eta, argitalpen-mota honen berezko dogmatismoa zein sektarismoa alde batera utzita, frankismoaren aurretik eta ondoren komikiaren eta ilustrazioaren arloan lan egin zuten gizon-emakumeak balioesten dira.

Nazioarteko testuinguruari dagokionean, *Pelayos* aldizkariak komikia genero gisa berritu zuen etorkizunean izango zuen garapenaren oinarrizko koordenatu gisa har ditzakegun bina izenburu eta autoreren bidez: Don Moore eta Alex Raymonden *Flash Gordon*, 1934ko urtarrilean sortua, eta Will Eisner egilearen *The Spirit,* 1940an agertua. Ildo horretan eta *Pelayos* gerrako propagandan tresna eraginkorra izan zela ukatu gabe, onartu beharra dago gazteenen heziketa tebeistikoan lagundu zuela, bai eta Espainian XX. mendearen erdiko hamarkadetan urrezko garaiak biziko zituzten irakurgai hauetara publikoa fidelizatzen ere.

Karlismoaren Museoa